


berbarotarra



elkartea

Pello Añorga Berbaron

Zapatu bitan gure artean izan dugu Pello Añorga ipuin kontaketa inguruko ikastaro batzuk ematen. Eta, nola ez, bere presentzia aprobetxatu dugu, literatura eta bizitzarekiko duen ikuspuntua azaldu diezagun.



Pello Añorga

Irakasle, idazle, ipuin kontalari, hainbat proiektu ezagunetan aitzindari... Zer Igehiago da Pello Añorga?

Ikasle ere banaiz. Bizitzaren misterioa dastatzeko nik uste oso inportantea dela ikasle izatea.

"Zure seme-alabei ipuinak kontatzeko edo irakurtzeko oinarrizko irizpideak" azalduko dizkiguzu ikastaroan. Non dago gakoa?

Gakoa zure onena eskaintzea da, maitasun guztiarekin; efektuan oinarrituta baino gehiago, afektuan. Horregatik esan ohi da ipuinek lotura afektiboak sor ditzaketela.

Zein da zure ipuin kontaketen helburua?

Komunikatzea. Hitza eta bizitza, momentuan, elkarrekin sentitzea, indartsuago sentitu gaitzen. Funtsean, elkarrekin bidaiatzea. Badakit momentu hori poetikoa izango dela komunikatzen baldin badugu.

Umeek helduok egiten duguna imitatzen dutela esan ohi da. Telebistako iragarkiak dioen bezala, umeen irakurzaletasuna bultzatzeko gurasoengan eragin behar al dugu lehenik?

Haurrek imitatuz ikasten dute, noski. Oinarrizko jarrera da, baina haurra irakurzale bihurtzea konplexuagoa da, ez da beti lortzen liburua haurren barneko pulstioen isla izatea. Haurra irakurzale bihurtzea misterioa da, nahiz eta estrategiak erabili.

Liburu bat aukeratzeko orduan, zeintzuk gomendio jarraitu beharko litzuke hezitzaile batek?

Haurren momentuko nahiak zeintzuk diren kontutan izatea. Beldurrezkoa, afektiboa, barregarria... zein ipuin nahi duen kontutan hartzea. Azken batean, haurren egoera animikoa kontutan izatea.

Gaurko ikastarora gizonetzko bakarra hurbildu zaigu. Umeen heziketa emakumeen esku uzten al da oraindik?

Informazio irakaskuntza ez da emakumeen kontua soilik; hori garbi dugu, gaur egun, zorionez. Informazio hori leporaino iritsi zaigu, eta batzuetan baita bihotzeraino ere. Baina oraindik bide asko geratzen da egiteko, bide informazio hori oinetaraino, ekin-tzaraino, hel dadin. Gauza bat ezagutzea da, eta beste bat jakitea; jakiteak jatea eskatzen du, jakiterakoan esanez gainera, egin egiten dugulako.

Ipuinak haurrarentzat dira soilik ala helduentzat ere bai?

Ipuin onek ez dute adinik. Haurren ipuin bat ona baldin bada, helduengana ere iritsi behar da. Nik haurrei kontatzen dizkiedan ipuin gehienak helduei ere kontatzen dizkiet. Ipuinak haurrarentzat bakarrik baldin badira, arriskua dago ipuin horiek "infantilegiak" izateko.

Arazoak, kezak, heriotza... sartu dituzu zure liburuetan. Ez al da gogorregia haurrarentzat?

Ipuin batek geruza asko izatea gustatzen zait. Bizitzan heriotza, errabia, mina ere badaude, pozarekin batera. Gainera, haurrek eskertu ere egin izan didate jarrera hau. Literaturak ere gure ezkutuko sentimenduekin harremantzeko balio du.

Durango liburu eta disko azoka hurbil dugu. Nolakoa da euskal literatura-oren osasuna?

Nik uste, euskal literaturan hobera egin dugula nabarmen. Hala ere, faltan botatzen dut haur txikientzat guk, euskaldunok, kreatutako liburuak izatea, gehienak itzulpenak baitira. Honek inbertsio handia eskatzen du ekonomikoki.

Haur literatur aretoa



Badatorkigu 2005eko Liburu eta Disko Azoka eta honekin bat, nola ez, gure Haur Literatur Aretoa.

Literatur Aretoak ume eta gazteengan irakurzaletasuna sustatzea du helburu. Eta helburu hau durangalde osoan abian jarri dadin, Barbarok Durangon bertan, azokan eta San Agustín Kultur Gunean ez ezik, Elorrión, Zaldibarren eta Matienan ere bere egonaldiak egiten ditu liburu, idazle eta ipuin kontalarien artean.

Haur Literatur Aretoak, beraz, bi norabide ditu: batetik, azokari erreferentzia egiten diona, eta bestetik, durangaldeko herri desberdinetako ikastetxeekin zerikusia duena.

Bi norabide horiek kontutan hartuta, gaurkoan, Durangoko Liburu eta Disko Azoka ate joka dugunez, azokako Haur Literatur Aretoan zentratuko gara.

Areto hau aurten Landako erakustazokaren alboan egongo da, 1 eta 2 sarreraren artean. Areto honek azokara hurbiltzen diren haur eta gazteei euskal literaturaren munduan zehar bidaiatzeko aukera eskainiko die, besteak beste.

Haur Literatur Aretoa, bada, bi espaziotan banaturik egongo da: batean, erakusketa girotua egongo da, 2 eta 12 urte bitarteko umeek liburuekin irakurketa libreak egin ditzaten; eta bestean, idazle eta ipuin kontalarien saio eta tailerrak burutuko dira.

Aipatutako bi espazio hauetan bi begirale izango ditugu aretoa antolatzen eta umeak eta gazteak eroso ibili daitezen.

	10.15-11.30 14.00-16.30 19.00-19.45	11.30-12.30 18.00-19.00	13.00-14.00 16.30-17.30
7-ASTEAZKENA	ERAKUSKETA GIROTUA Jolas eta irakurketa librea. 2-12 urte	EKINTZA BEREZIA Jolas eta irakurketa librea	EKINTZA FINKOIA Jolas eta irakurketa librea
8-OSTEGUNA	Jolas eta irakurketa librea	Ipuin kontalaria (Pello Añorga) 5 urtetik aurrera	Liburuen aurkezpenak (Pello Añorga) 6 urtetik aurrera
9-OSTIRALA	Jolas eta irakurketa librea	<i>Ipuinak asmatzen</i> tailerra (Joanes Urkixo) 8 urtetik aurrera	Liburuen aurkezpenak (Joanes Urkixo) 6 urtetik aurrera
10-LARUNBATA	Jolas eta irakurketa librea	<i>Apo eta Bizitzaren Sua</i> (Wapoa ipuin kontalaria)	Wapoa ipuin kontaketa proiektuaren aurkezpena
11-IGANDEA	Jolas eta irakurketa librea	Poesia tailerra (Xabier Olaso)	Liburuen aurkezpenak (Xabier Olaso)

Sormen tailerrak

Berbarok orain ere martxan jarri ditu bere baliabide gazteen aisian eragiteko. Kasu honetan, Barbarok tziaga Ikastolan dihardute, astero, gaztetxoenei espresetzen. Tailer hauetako bat marrazketa da eta, bestea, hauek haurrak jolas egiteko eta espresatzeko gune-pertsonok jolastuz eta espresatuz aztertu egiten dugun egiten dugulako.



deak ume eta langile bik Kurusio tailerrak eskaindantza tailerra. Tailer ak dira, azken batean, lako eta aztertuz ikasi

Espresio tailer honetan, beraz, ume bakoitzari "bera den bezalakoa" izateko aukera ematen zaio. Haurrak bere burua onartzen ikasiko du eta hala bada, bere buruarekin seguru sentituko da. Baina aurrean aipatutako guztia eman dadin, espresio tailer hauetan diharduten hezitzaileek oinarri-oinarrizkoa deritzaien irizpide bat hartzen dute ardatzat: tailer hauetan adin desberdinetako ume eta gazteak, guztiak batera, jardun behar dute lanean. Marrazketa eta dantza tailerrekin, beraz, gaur egun alboratuta dagoen eta pertsonok horren beharrezkoa dugun espresio-bide hori eskaini nahi die haurrei Berbarok. Eta nola ez, bide batez, eskolako orduetatik at, haurren ahotan euskara sustatzeko une bereziak ere sortu nahi ditu. Zure haurrengan hazkuntza pertsonala ematea nahi baduzu, ez galdu espresio tailer hauek umeari hazkuntza horretan aurrera egiteko eman diezaioketen aukera hori. *Hausnartu, animatu, eta eman izena Kurutzia Ikastolan.*

Lehiaketa

Hi, artista hi! izenburua jarri dio Berbarok, gabonak ingururako, umeei zuzenduta antolatu duen lehiaketari. Zer egin behar den? Marrazki, eskulan, edo Olentzerori gutun bat idatzi.

Gaia: Gabonak.

Nori zuzenduta? 6 eta 12 urte bitarteko umei.


Lanok Berbaro elkartearen aurkeztu beharko dira abenduaren 19a baino lehen. Saikapena adinaren arabera egingo da, eta guztira 9 sari banatuko dira. Sari Banaketa Plateruena Kafe Antzokian egingo da abenduaren 26an, arratsaldeko 18:00etan. Ondoren eta bi egunetan zehar lan guztiak Plateruenean egongo dira erakusgai. Animatu itzazue ba zuen inguruko gazteak lehiaketa honetan parte hartzera!



Ume zaintzaileen lan poltsa

Ume zaintzaile euskaldunen lan poltsa martxan dago! Aurreko Berbarotarra buletinean eman genizuen asmo honen berri eta dagoeneko guraso batzuei behar zuten ume zaintzailea topatu diegu.

Orain kanpainako kartelak aurkeztu eta urte osoan zehar begirale, ume zaintzaile edo kangururik behar baduzue, zalantzarik gabe gugana jo dezakezuela gogorazi nahi dizuegu. Gure telefonoak eta ateak zabalik dituzue gure lan poltsatik tira egin nahi duzuen guztiok. Halaber, lan poltsako parte izan nahi baduzue, urte osoan zehar eman dezakezue izena Berbaroren bulegoan (Pinondo Etxean).



Poltsa bete euskera

Aurten lehenengo aldiz, gabonetako eta neguko merkealdirako kanpaina bateratua aterako dugu BERBAROk, Elorrioko BARRIKETANek, Iurretako GEURIEN BAI!, Berrizko BERBIE eta Zaldibarko EIXU euskera elkarteek.

Jakin jakingo duzue Berbaro merkataritza euskalduntzen aritu dela azken zazpi urteetan Udalarekin hitzarmena sinatu zuenetik. Euskeraren normalizazioan merkataritza funtsezko arlotzat jotzen dugu Berbarokook baina orainoan, euskalduntze prozesu horretan merkataria kontutan hartzeaz gain, erosleak inplikatzeko beharra ere ikusi dugu. Guztiok baikara erosle, eroslerik gabe ez dagoelako ez erosketarik ezta merkataritzarik ere. Durangaldeko beste elkarte batzuekin elkarlana sustatzeko eta denon artean egin dezakegunak eragin handiagoa izan zezakeelakoan, Berbaro Elorrioko Barriketanekin eta Zaldibarko Eixurekin batzartu zen bere asmoen berri emateko. Lehenengo batzar hartatik ez zen egitasmo zehatzik sortu baina hiru elkarteok elkarlana sendotzeko nahi argia agertu genuen.

Hilabete batzuk geroago, neguko erosketara sasoiari begira batzar berria egin eta, kanpaina bateratua egingo bagenuen, irizpideak, helburuak eta egitekoak finkatzeko beharra ikusi genuen. Batzar honen ondoren, proiektua Berriz eta Iurretara ere zabaltzea lortu genuen eta denon artean kanpainaren nondik norakoak konkretatu genituen: helburua, nori zuzendu, non, noiz, nola...

Hala ba, datorren abenduaren erdialdean hasi eta urtarrila arte gure herriko kaleetan kartelak jarri eta esku-orriak banatuko ditugu erosketak egiten dabiltzanak sentsibilizatu asmoz. Kanpaina Abadiño eta Apatamonasteriora ere zabaltzeko asmoa daukagu.


Eskuorri eta karteletarako aukeratutako lema "poltsa bete euskeraz" da, alde batetik, poltsa euskeraz bete dezazue la nahi dugulako eta, bestetik, ekimen honekin poltsa bete euskera lortu gura genukeelako.

Kanpaina hau urte sasoi konkretu honetara mugatzearen arrazoi nagusia garai honetan egiten diren erosketara ugarriak dira. Hala ere, urte osoan zehar ere berdin egitera animatu nahi zaituztegu.

Poltsa bete euskeraz... zergatik ez?

Euskararen erabileraren Kale-neurketa Durangon 2005

Berbarok 1995ean egin zuen euskararen erabileraren lehenengo kale-neurketa. Dakizuenek, lan honen helburua Durangon euskararen erabilera ehunekoan zenbatekoa den jakitea da. Hamar urte igaro dira eta grafikoko datuen arabera agerian dago egoera aldatuz doala. Hona ekarri duguna aurrerapena da. Txostena osatzen denean, aurrekoetan egin zen moduan, publiko egingo dira datuok prentsaurreko baten bidez.



Ikimilikili... klik euskaraz

Blog-o esfera

Dagoeneko zuetariko askok jakingo duzue zer den edo, behintzat, entzungo zenuten Blog-en gainean berbetan. Onartu behar dut, oster, hain modan dauden Blog-ak zer diren orain dela egun gutxi jakin dudala.

Sasoi aproposa da idazleen bitakora-koadernoak kuxkuxeatzeko, Haur

Literatur Aretoa eta Liburu eta Disko azoka borborrean baitaude. Esan dezagun ba, Blog bat bitakora-koaderno edo liburu pertsonal bat dela.

Egunerokotasunak eskaintzen duenari buruzko iritzia ematen digute idazleek beraien blogetan eta irakurtzeaz gain, parte hartzeko aukera ere badugu.

Interesgarria iritzi diogu zenbait bitakora-koaderno hona ekartzeari. Hemen dituzue batzuk:

Xabier Mendiguren Elizegi:

- www.eibar.org/blogak/mendiguren
- Izenburua: "Paperjalearen dieta".
- Aurkezpena: Xabier Mendiguren Elizegi dut izena. Beasainen jaio nintzen, 1964an.



Filologoa naiz formazioz, editorea ofizioz, irakurlea afizioz, idaz-

lea bokazioz, berri-tua bizioz, euskalduna bedeinkazioz edo madarikazioz. Lagunen eskariei ezetz esaten jakin ez eta blog honetan idazten hasi naizenez gero, ea gauza naizen, egunen harian, nire giza kondizio horien inguruan bururatzen zaizkidanak kontatzeko.

Julen Gabiria:

- www.eibar.org/blogak/gabiria/
- Izenburua: "Lagun batek esan dit lagun batek esan diola..."

- Aurkezpena: Ostiralez jaio nintzen, neguan eta arratsaldean, Estokolmo Sindromea lehenengoz agertu zen urtean. Geroztik, neguko ostiral arratsaldean beharra izaten dut, batez ere udaberriko astelehen goizetan.

Anjel Lertxundi:

- www.berria.info/blogak/lertxundi/
- Izenburua: "Hitz beste"
- Aurkezpena: *Ispilu aurrera joan nintzen. Ez nengoen han.*

Blog hauek eta beste hainbat irakurgai dituzue web guneek eskaintzen dituzten blogo-esferetan.

www.eraztuna.com-en aurkitu dezakezue blogen zerrenda. Gozatu ba!

2005-2006 haur eta gazteen irakur gida

Urtero legez, Berbarok irakur gida argitaratu du 2004ko liburu gomendagarriekin eta 2005eko argitalpen berrieekin. Eskuratu nahi baduzue Liburu eta Disko Azokako Haur Literatur Aretoan salgai izango duzue. Prezioa: euro 1.

Ikastaroak:

Dakizuen lez, Berbarok urtarrila eta azaroan zehar ikastaro bi antolatu ditu. Bata umeen osasunari buruzkoa eta Pello Añorgaren eskutik, "ipuinak kontatzeko edo irakurtzeko oinarrizko irizpideak" bestea. Biak oso interesgarriak bertara hurbildu direnen hitzetan. Datorren urtera begira, zuen intereseko ikastarorik badago bidali itzazue zuen proposamenak Berbarora.



IKASTAROA

ZURE SEME-ALABEI IPUINAK KONTATZEKO EDO IRAKURTZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Guraso, hezitzaile edo interesa duen orori zuzenduta Pello Añorga ipuin kontalariak 7 urte arteko umei ipuinak nola kontatu azalduko digu.

azaroak 19 eta 26an
10:00etatik 14:00etara PINONDO ETXEAN

Pinondo Etxea, 1
267 PK
Durango
tel 94 620 19 18
Guzt: arkor
tel: 94 620 25 40
berbarok@elkartea.com

Prezioa:
Berriketak: 8 euro
Bukatuak ez direnak: 10 euro